

# 349 eredia. EBeko subjektu pasiboekin egindako eragiketen laburpena

## Jarraibideak

Eredu honetan makinaz idatzi behar da, datu guztiak zuzen ulertzen laguntzeko.

Elkarte barruko ondasunen emateak edo eskuraketak eta elkarte barruko zerbitzuen prestazioak edo emateak egin dituzten subjektu pasiboek erabili behar duten eredia, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren 79. artikulua ezarri dituen terminoetan.

## Ekitaldia, epealdia eta aitorten osagarria edo ordezkoa

**Ekitaldia:** aitortzen den hiruhilekoari dagokion ekitaldiaren lau zifrak idatzi behar dira.

**Epealdia:** hileko aitortpena bada:

01 = Urtarrila	02 = Otsaila	03 = Martxoa	04 = Apirila
05 = Maiatza	06 = Ekaina	07 = Uztaila	08 = Abuztua
09 = Iraila	10 = Urria	11 = Azaroa	12 = Abendua

Hiruhileko aitortpena denean adierazi behar da jarraiko taulan ageri den bezala:

1. hiruhilekoa: 1H	2. hiruhilekoa: 2H	3. hiruhilekoa: 3H	4. hiruhilekoa: 4H
--------------------	--------------------	--------------------	--------------------

Urteko aitortpena aurkeztuz gero, epealdia OA da.

**Aitorten ordezkoa:** jarri X bat laukian.

## Aitortenaren laburpena

**[01]** laukitxoa. Elkarte barruko eragileen kopuru osoa: aurreko orrietako edo zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarriko zerrendetan agertzen diren subjektu pasiboaren kopuru osoa zainpetuko da, hau da, ELKARTE BARRUKO ERAGIKETEN ZERRENDARI dagokionez; berdin da elkarte barruko emate salbuetsiak egiten dituen zein hiruko eragiketen esparruko elkarte barruko eskuraketa salbuetsien ondorioz beste estatu kide batzuetan egiten diren emateak edo lotuta dauden elkarte barruko eskuraketak, elkarte barruko zerbitzuen prestazioak edo elkarte barruko zerbitzuen eskuraketak izan. Baldin eta elkarte barruko eragile bera erregistro baten baino gehiagotan agertzen bada zerrenda horietan agertzen den guztietan zenbatuko da.

**[02]** laukitxoa. **Batasun barruko eragiketen zenbatekoa:** **[01]** laukian adierazitako eragiketen zerga oinarri guztien batura adierazi behar da.

**[03]** laukitxoa. Elkarte barruko eragileen kopuru osoa, zuzenketekin: aurreko orrietako edo zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarriko zerrendetan agertzen diren subjektu pasiboaren kopuru osoa zainpetuko da, hau da, AURREKO ALDIETAKO ZUZENKETE dagokienez; berdin da elkarte barruko emateak izan zein elkarte barruko eskuraketak, hiruko eragiketak, elkarte barruko zerbitzuen prestazioak edo elkarte barruko zerbitzuen eskuraketak izan. Zuzenketak dituen elkarte barruko eragile bera erregistro baten baino gehiagotan agertzen bada zerrenda horietan agertzen den guztietan zenbatuko da.

**[04]** laukia. **Zuzenketen zenbatekoa:** **[03]** laukian aipatutako subjektu pasibo guztien ziurtagiriei dagokien **Zerga oinarri zuzendua** atalean adierazitako zenbateko guztien batura jarri behar da.

## Talde aurkezpena

Aurkezleak subjektu pasibo batzuen aitortenak taldekaturik aurkezten baditu, aurkezlearen laburpen-orri orokorraz gaitera euskarrian ageri den subjektu pasibo bakoitzeko laburpen-orri bat aurkeztu behar da.

**[05]** laukia. **Talde euskarrian ageri diren aitortzaileen kopurua, guztira:** talde aurkezpeneko euskarri magnetikoan ageri diren subjektu pasibo aitortzaileen guztirako kopurua adierazi behar da.

**[06]** laukia. **Talde euskarrian ageri diren pertsonen eta erakundearen kopurua, guztira:** talde aurkezpeneko euskarri magnetikoan dauden aitortenetan ageri diren pertsonen eta erakundearen guztirako kopurua adierazi behar da.

## Aurkezpen mota

Markatu "X" batez aitortpena aurkezteko moduari dagokion laukia edo laukiak. Aitorten bat (subjektu pasibo bakarra)

edo batzuk (subjektu pasibo batzuk) aurkezten diren zehaztu behar da, eta aitortpena edo aitortenak inprimakian edo ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian egin diren ere. Talde aurkezpena bada (aitortzaile batzuk), adierazi behar da laburpen-orriaren ageri diren datuak aurkezlearen edo euskarriko aitortzaileetako batenak diren.

## Euskarri mota

Euskarri magnetikoa aurkezten bada, nolakoa den zehaztu behar da; horretarako X batez markatu behar da lauki egokia.

## Data eta sinadura

Data eta sinadura berariaz ezarritako eremuan jarri behar dira, eta horiez gainera baita sinatzailearen izena, deiturak eta kargua edo enplegua ere; sinatzailea hauetako bat izan behar da:

- Aitortzailea edo beraren ordezkaria, banako aurkezpena bada edo talde aurkezpenean dauden subjektu pasiboetako bat bada.
- Aurkezlea edo beraren ordezkaria, talde aurkezpenaren euskarriari dagokion laburpen-orria bada.

## Administrazioa

Administrazioak bete beharreko eremua.

## Aurkezpen epea

Oro har, laburpen-aitortpenean hil natural bakoitzean egindako eragiketak agertu behar dira. Honelako aitortenak aitortzen den hilaren ondoko hileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar dira. Salbuespenak: uztailekoa abuztuan eta iraileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu daiteke eta abendukoa hurrengo urteko urtarrileko hogeita hamaika egun naturaletan aurkeztu behar da.

Ez erreferentziako hiruhilekoan ez aurreko lau hiruhileko naturaletan laburpen-aitortpenean agertu beharreko ondasun-emeaten eta zerbitzugintzen guztirako zenbatekoa ez bada 50.000 €-tik gorakoa (2010eko eta 2011ko laburpen-aitortpenetan 100.000 eurotik gorakoa) BEZa kanpo, laburpen-aitortpena hiruhilekoaren ondoko hurrengo hileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da. Salbuespena: urteko azken hiruhileko aitortpena hurrengo urteko urtarrileko hogeita hamaika egun naturaletan aurkeztu behar da.

Egutegiko hiruhilekoa eratzen duten hileen edozeinen amaieran aurreko paragrafoan ezarri den zenbatekoa gaintzen bada aitorten labur biltzaile bat aurkeztu beharko da aipatu den egutegiko hiruhileko horren hasieratik igaro diren hil edo hiletarako, eta aurkezpen hori horren osteko egutegiko hogeitabost egunen barruan aurkeztuko da, ondoko irizpide hauen arabera:

- Egutegiko lehen hiruhilekoaren lehen hilean aurreko paragrafo horretan adierazi den zenbatekoa gaintzen bada, hileko aitorten bat aurkeztu beharko da hil horretan egin diren eragiketak jasota.
- Egutegiko lehen hiruhilekoaren bigarren hilean aurreko paragrafo horretan adierazi den zenbatekoa gaintzen bada, hau da, hiruhilekoko hasierako bi hileei dagozkien eragiketak sartzen dituen; kasu honetan X bat idatziko da inprimakiaren karatulan ondore horretarako ezarri den laukitxoa, eta horrela adierazi egingo da hiruhileko etena dela.

Aitorten labur biltzailea egutegiko urteari buruzkoa izango da eta urte bakoitzaren osteko urtarrilaren hogeita hamaika egunen barruan aurkeztuko da, beti ere ondoko inguruabar hauek gertatzen direnean:

- Aurreko egutegiko urtean egin diren ondasunen emateen eta zerbitzuen prestazioen zenbateko osoa, BEZ kanpo 35.000 eurotik beherakoa izatea.
- Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko lehenengo eta hirugarren idatz-zatietan xedatutakoaren arabera kargatik salbuetsita dauden ondasun-emeaten zenbatekoa (garraio gailu berriak ez beste ondasun batzuk) ez izatea guztira 15.000 euro baino gehiago.

## Barruko orriak

Aitortenak, laburpen orria ez ezik, barruko orriak ditu: horietariko bati "Elkarte barruko eragiketen zerrenda" deritzo eta bertan ondoko hauek aitortuko dira: elkarte barruko emateak, elkarte barruko eskuraketak, zerbitzuen elkarte barruko prestazioak, elkarte barruko zerbitzuen eskuraketak eta hiruko eragiketak; eta beste bati "Aurreko aldietako zuzenketak" deritzo, eta horretan aurrez aitortu diren elkarte barruko eragiketetan egin diren zuzenketak aitortuko dira.

Orri guztietan adierazi behar dira aitortzailearen IFZ, deiturak eta izena edo sozietatearen izena, ekitaldia, epealdia eta orri zenbakia. **Ekitaldia:** aitortzen den hiruhilekoari dagokion ekitaldiaren lau zifrak idatzi behar dira.

**Epealdia:** Hileko aitortpena bada:

01 = Urtarrila	02 = Otsaila	03 = Martxoa	04 = Apirila
05 = Maiatza	06 = Ekaina	07 = Uztaila	08 = Abuztua
09 = Iraila	10 = Urria	11 = Azaroa	12 = Abendua

Hiruhileko aitortpena denean adierazi behar da jarraiko taulan ageri den bezala:

1. hiruhilekoa: 1H	2. hiruhilekoa: 2H	3. hiruhilekoa: 3H	4. hiruhilekoa: 4H
--------------------	--------------------	--------------------	--------------------

Urteko aitortpena aurkeztuz gero, epealdia OA da.

### “Batasun barruko eragiketen zerrenda” orrian adierazi beharreko datuak

**Europako Batasuneko IFZ.** EBeko estatuaren identifikazio letrak edo hauen zerga identifikazioa:

- Subjektu pasiboak Batasunaren barruan eskuratutako ondasunak hornitu dituztenena (A gakoa).
- Subjektu pasiboak Batasunaren barruan emandako ondasunak eskuratu dituztenena (E gakoa).
- Hiru aldeko eragiketetan subjektu pasiboak emandako ondasunak jaso dituztenena (T gakoa).
- Salbuetsitako inportazioaren ondoren Batasunaren barruan ematen diren ondasunak jasotzen dituztenak (eskuratzaileak); (M gakoa).
- Salbuetsitako inportazioaren ondoren zerga ordezkariak Batasunaren barruan ematen dituzten ondasunak jasotzen dituztenak (eskuratzaileak); (H gakoa).
- Elkarte barruko zerbitzuen prestazioen hornitzaileenak, aitortzaileak egin dituenak (S gakoa).
- Elkarte barruko zerbitzuen prestazioen jasotzaileenak, zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta daudenak, beste estatu kide batzuetakoak diren enpresario edo profesionalak eman dituztenak (I gakoa).

Europar Batasuneko kide diren estatuen IFZaren osaketa:

Estatua	Herrialdearen kodea	EBko IFZ
Espainia	ES	Egungo IFZa
Alemania	DE	9 zenbakizko karaktere
Austria	AT	9 alfazenbakizko karaktere
Belgika	BE	10 zenbakizko karaktere
Bulgaria	BG	9 edo 10 zenbakizko karaktere
Zipre	CY	9 edo 10 zenbakizko karaktere
Danimarka	DK	8 zenbakizko karaktere
Eslovenia	SI	8 zenbakizko karaktere
Estonia	EE	9 zenbakizko karaktere
Finlandia	FI	8 zenbakizko karaktere
Frantzia	FR	11 alfazenbakizko karaktere
Grezia	EL	9 zenbakizko karaktere
Erresuma Batea	GB	5, 9 edo 12 alfazenbakizko karaktere
Herbehereak	NL	12 alfazenbakizko karaktere
Hungaria	HU	8 zenbakizko karaktere
Italia	IT	11 zenbakizko karaktere
Irlanda	IE	8 alfazenbakizko karaktere
Letonia	LV	11 zenbakizko karaktere
Lituania	LT	9 edo 12 zenbakizko karaktere
Luxemburgo	LU	8 zenbakizko karaktere
Malta	MT	8 zenbakizko karaktere
Polonia	PL	10 zenbakizko karaktere
Portugal	PT	9 zenbakizko karaktere
Txekiar Errep.	CZ	8, 9 edo 10 zenbakizko karaktere
Errumania	RO	2tik 10etara zenbakizko karaktere
Eslovakia	SK	9 edo 10 zenbakizko karaktere
Suedia	SE	12 zenbakizko karaktere

**Ondasunak eman edo eskuratu dituztenen edo hiru aldeko eragiketen azken hartzaileen deiturak eta izenak edo sozietate izenak, eragiketen arabera.** Batasun barruko eragile bakoitzeko idazpen bat egin behar da gako bereko eragiketei buruz.

**Gakoa:** eragiketari dagokion gako alfabetikoa idatzi behar da; hona hemen zerrenda:

- A gakoa: gako honek subjektu pasiboak Batasun barruan egindako eskuraketak adierazten ditu, Batasuneko beste estatu batetik ondasun- transferentziak barne.
- E gakoa: gako honekin Batasunaren barruko ondasun emate salbuetsiak aitortu behar dira; salbuespenak: Batasunaren barruan, hiru alderdiren arteko eragiketetan, eskuraketa salbuetsien ondoren beste estatu kide batean egindako emateei “T” gakoa dagokie, eta salbuetsitako inportazioaren ondoren Batasunaren barruan egiten diren ondasun emateei “M” edo “H” gakoa, kasuan kasukoa.
- T gakoa: Gako hau zainpetuko da elkarte barruko eskuraketa salbuetsien ondorioz beste estatu kide baten egiten diren emateak aitortzeko, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren 79. artikulua 5. atalean ezarri diren terminoetan; horiei hiruko eragiketa deritze.
- M gakoa: BEZari buruzko FAko 21.12 artikuluan ezarritakoaren arabera, gako honekin salbuetsitako inportazioaren ondoren Batasunaren barruan egindako ondasun emateak aitortu behar dira.
- H gakoa: BEZari buruzko FAko 27.12 artikuluan ezarritakoaren arabera, gako honekin salbuetsitako inportazioaren ondoren Batasunaren barruan zerga ordezkariak Foru Arau bereko 86.hiru artikuluaekin bat etorritik egindako ondasun emateak aitortu behar dira.
- S gakoa: Gako hau zainpetuko da aitortzaileak egin dituen zerbitzuen prestazioak aitortzeko.
- I gakoa: Gako hau zainpetuko da zergaren aplikazioko lurraldean kokatuta dauden elkarte barruko zerbitzuen eskuraketak aitortzeko, kideak diren estatuetan kokatuta dauden enpresarioek edo profesionalak eman dituztenak eta baldin eta jasotzailea aitortzailea bada.

**OHARRA:** ez dira zainpetu behar Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 26. artikuluko hirugarren idatz-zatian ezarritakoaren arabera kargapean ez dauden Batasun barruko eskuraketak.

Zerga oinarria. Jarraiko eragiketa mota hauetako bakoitzari dagokion BEZaren zerga oinarriaren guztirako zenbatekoa jarri behar da:

- Salbuetsitako Batasun barruko emateak, eragiketa gakoa E bada.
  - Kargapeko Batasun barruko eskuraketak, eragiketa gakoa A bada.
  - Hiru aldeko eragiketetan kargarik gabeko Batasun barruko eskuraketan ondoriozko ondasun-emateak, eragiketa gakoa T bada.
  - Salbuetsitako inportazioaren ondoren Batasunaren barruan egindako ondasun emateak, “M” edo “H” gakoa, kasuan kasukoa, jarri bada.
  - Egin diren elkarte barruko zerbitzuen prestazio guztienak, baldin eta eragiketari dagokionez S gakoa zainpetu bada.
  - Elkarte barruko zerbitzuen eskuraketa guztienak, baldin eta eragiketari dagokionez I gakoa zainpetu bada.
- Beraz, baldin eta aldi berean eragiketa bat baino gehiago egin badira elkarte barruko eragile batekin, horiek eragiketaren gakoan arabera metatu behar dira, zertarako-eta eragiketa eta aldien gako bakoitzeko erregistro bakarra zainpetzeko.
- Hiruko eragiketei dagokienez, horietan ere elkarte barruko eragilearen eta aldiaren arabera metatuko dira.

### “Aurreko ekitaldietako zuzenketak” orrian adierazi beharreko datuak

**Herrialde kodea / Europako Batasuneko IFZ.** Zuzendu den eragiketa egin duen subjektu pasiboaren IFZ adierazi behar da.

**Deiturak eta izena edo sozietatearen izena.** Zuzendu den eragiketa egin duen pertsona edo erakundearen identifikazio datuak adierazi behar dira.

**Ekitaldia eta Epealdia.** Zuzendu nahi den eragiketa egin zen urteko lau zifrak eta epealdia.

**Gakoa.** A, E, T, M, H, S edo I gakoa zainpetuko da, hurrenez hurren zuzendu behar den eragiketa hori elkarte barruko eskuraketa, elkarte barruko ematea, salbuetsitako

inportazioaren ondoren Batasunaren barruan egindako ondasun ematea, hiruko eragiketa baten ondorioz egin den osteko ematea, elkarre barruko prestazioa edo elkarre barruko zerbitzuen eskuraketa izatearen arabera.

*Zerga oinarria, zuzenduta.* Eragiketaren zerga oinarriaren gutxitakoa zenbateko berria.

*Lehen aitortutako zerga oinarria.* Aurreko aitortutako zerga oinarria, aitortutako honetan zuzendu nahi dena.

Epealdi batean Batasun barruko eragile baten eragiketa bat baino gehiago zuzendu bada, eragiketa gakoaren arabera pilatu behar dira.

*Eragilearen IFZaren zuzenketa.* Batasun barruko eragilearen IFZ zuzendu nahi izanez gero, bi zuzenketa-erregistro bete behar dira. Batean zuzendu beharreko datuak eurak adierazi behar dira. Zuzenketa eremua honela bete behar da: *Ekitaldia* eta *Epealdia* laukietan zuzendu beharreko aitortutako zerga ekitaldia eta epealdia; *Zerga oinarria, zuzenduta* laukian zeroa jarri; *Lehen aitortutako zerga oinarria* laukian zuzendu beharreko aitortutako jarritako zenbatekoa jarri behar da.

Beste zuzenketa-erregistroan IFZ zuzena jarri behar da; *Ekitaldia eta epealdia* laukietan zuzendu beharreko aitortutako zerga ekitaldia eta epealdia adierazi behar dira, *Zerga oinarria, zuzenduta* laukian kopuru zuzena eta *Lehen aitortutako zerga oinarria* laukian zeroa.

## Adibideak

### 1. adibidea

Espainiako ES B22222222 subjektu pasiboak 2011ko bigarren hiruhilekoan egindako eragiketak.

Bi merkatugai erlo erosi dizkio Holandako NL 12345678910 enpresariari, bata maiatzaren 12an 3.455,25 euro ordainduta eta bestea ekainaren 15ean 2.841,91 euro ordainduta.

Makina batzuk eman dizkio Portugalgo PT 123456789 enpresariari; makinek 3.344,55 euro balio dute.

Ekainean ondasun bat eskuratu dio Greziako EL 99999999 subjektu pasiboari 10.533,01 euro ordainduta, merkatugai Portugalen utzi da eta gero Espainiako subjektu pasiboak Portugalgo PT 123456789 subjektu pasiboari (aurrean aipatua) eman dio 10.609,31 euroren trukean; hori guztia hiru aldeko eragiketa izan da.

Bigarren hiruhilekoan egindako eragiketak.

Holandako NL12345678910 enpresariarekin egindako 3.455,25 euroko eragiketa hutsaldu da: produktuak eta dirua itzuli dira.



Ez bete tarte hau

Batasun barruko eragiketen laburpena

349

Batasun barruko eragiketen zerrenda

Ekitaldia	Epealdia	Orria
2011	2T	1/1

Aitorzailearen IFZ	Aitorzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena
ESB22222222	XXXXXXXXXXXXXXXXXX

01	Herri. kodea	Europako batasuneko IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena	Zerga oinarria	Gakoa
	NL	123456789100	XXXX	6.297,16	A
02	PT	123456789	ZZZZ	3.344,55	E
03	Herri. kodea pais	Europako batasuneko IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena	Zerga oinarria	Gakoa
	PT	123456789	ZZZZ	10.609,31	T



Ez bete tarte hau

Batasun barruko eragiketen laburpena

349

Aurreko ekitaldietako zuzenketa

Ekitaldia	Epealdia	Orria
2011	3T	1/1

Aitorzailearen IFZ	Aitorzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena
ESB22222222	XXXXXXXXXXXXXXXXXX

01	Herrialde kodea	Europako batasuneko IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena	Gakoa
	NL	123456789100	XXXX	A
	Ekitaldia	Epealdia	Zerga oinarria, zuzenduta	Lehen aitortutako zerga oinarria
	2   0   1   1	2   T	2.841,91	6.297,16

2. adibidea

Espainiako ES B22222222 subjektu pasiboak 2011ko lehen hiruhilekoan ondasun bat eman dio Frantziako FR 12345678910 enpresariari 10.321,02 euroren trukean. Gero, lehen hiruhilekoan

egindako Batasun barruko laburpen aitortpena auzeratu ondoren, Frantziako subjektu pasibo horrek esan dio jaso duen fakturan IFZ oker dagoela eta hauxe dela zuzena: FR 01234567891. Espainiako subjektu pasiboak honela zuzendu behar du akatsa:



Ez bete tarte hau

<p>Batasun barruko eragiketen laburpena</p>	<p>349</p>
<p>Aurreko ekitaldietako zuzenketak</p>	

Ekitaldia	Epealdia	Orria
2011	2T	1/1

Aitorzailearen IFZ	Aitorzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena
ESB22222222	XXXXXXXXXXXXXXXXXX

	Herralde kodea	Europako batasuneko IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena	Gakoa
01	FR	12345678910	XXXX	E
	Ekitaldia	Epealdia	Zerga oinarria, zuzenduta	Lehen aitortutako zerga oinarria
	2   0   1   1	1   T	0,00	10.321,02
02	FR	01234567891	XXXX	E
	Ekitaldia	Epealdia	Zerga oinarria, zuzenduta	Lehen aitortutako zerga oinarria
	2   0   1   1	1   T	10.321,01	0,00